

# Denboraren makina

N A G O R E I R A Z U S T A B A R R E N A

## Milioika pose 85 urtean

VINTAGE EPHEMERA



Anatol Josephok (1894-1980) fotomatoia asmatu eta lau urtera, 1930ean, Arizonako fotomatoi batean ateratako argazki sorta.

NEW YORK, 1926KO IRAILA. “Egin argazkia zeure buruari! Zortzi pose, zortzi minutuan” idatzita zuen kabina ipini zuten Broadwayn, 51. eta 52. kaleen kantoian. Munduko lehen argazki estudio automatizatua zen, profesionalen beharrik gabe, 25 zentimoren truke eta minutu gutxian zortzi argazkiko zerrenda egiten zuena. Tramankulua 32 urteko Anatol Josepho siberiarrak asmatu eta patentatu zuen.

Anatol Josephewitz –abizena gero aldatu zuen– Alemaniara joan zen 15 urte zituela, eta han ikasi zuen argazkilari lanbidea. Lehen Mundu Gerra amaituta Shanghaira joan zen, eta Txinako hiri horretan zegoela bururatu zitzaion asmakizuna. Baina New Yorkera iritsi arte ez zuen ideia gauzatzeko beharrezko kapitala lortu: 11.000 dolar. Inbertsioa berehala bihurtu zen errentagarri.

1927ko apirilko *Times Magazine* aldizkariaren arabera, urte erdian 280.000 lagunek erabili zuten *photobooth* (argazki kabina) izeneko makina. Urte horren amaieran kabina Europara eta Kanadara iritsi zen eta Frantzia, lehenengoz, *Photomaton* esan zioten. Baina ordurako Anatol Josepho ez zen

makinen jabe. 1927ko martxoaren 28an, *The New York Times* egunkariko azaleko albisteak zioen Josephok milioi bat dolarren truke saldu zituela argazki kabina ustiatzeko eskubideak. Dirutza izugarria zen garai hartan, baina polemikoena Josephok diruarekin egin zuena izan zen: milioi erdia karitate egintzetarako eman zuen. Jendeak ez zuen ulertu Anatolek egindakoa eta, siberiarra zenez, altruismoa komunismoarekin nahastu zuten. Zorionez, urte batzuk falta ziren oraindik McCarthyren jazarpena abiatzeko eta Josepho 1928an Los Angelesera erretiratu zen, beste milioi erdiaz lasai bizitzera.


Urte horretan, André Breton surrealistak fotomatoia “irudi bidezko psikoanalisi sistema” zela idatzi zuen. 1963an Andy Warholek fotomatoia erabili zuen Ethel Scullen erretratu ezaguna egiteko. Eta gaur egun, argazki digitalen aro betean, ordenagailuek eta telefono mugikorrek fotomatoi aplikazioak izan arren, dokumentu pertsonaletako argazkiak ateratzeko Josephok duela 85 urte Broadwayn jarri zuen kabina haren oinordekoak erabiltzen dira.

## Arrastoak

### Nork berritu behar du Betleemgo basilika?

BETLEEMGO Jaiokundearen basilika egoera tamalgarrian dago. XIX. mendean erdialdetik ez da bertan berrikuntzarik egin eta, besteak beste, lurrikaren ondorioak jasan behar izan ditu. Orain, eliza kristauak (ortodoxoak, katolikoak eta armeniarrek) akordioa

sinatu dute eliza berritzeko, baina, zenbait adituren ustez, berandu izan daiteke ondare historikoa osotasunean berreskuratzeko. Gainera, oraingoz, dirua jarri duen bakarra –milioi bat dolar– Palestinako Aginte Nazionala izan da.



PALESTINE TOURISME DIRECTORY